

## **KONTROL MOZIOA**

### **KULTUR ANIZTASUN KUDEAKETARAKO GOBERNU PROGRAMAN JASOTAKOIA BETETZEN ARI EZ DELA ETA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko martxoan Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

2013, 2014, 2015 eta 2016. urteetan, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontra eta jatorri aniztetako herritarren aitortza egiteko, sensibilizatzeko eta Donostian bizi diren hainbat talderen arteko hurbiltasuna eta ezagutza bultzatzeko, Donostiako Aniztasunaren Aldeko Eguna ospatu zen.

Horrekin, Donostiako biztanleriaren jatorri eta kultura aniztasuna ikusarazi eta hurbildu nahi izan da, ekintza hauek agerian jartzen baitute oharkabeko errealitatea eta aniztasunari balio berri bat ematen baitiote. Modu berean, estereotipoak hautsi eta biztanleria sensibilizatzen dute, elkartasunaren, errespetuaren eta kultur artekotasunaren balioak erantsiz.

2016ko maiatzaren 11n burutu zen Donostian azken aldiz jaialdi arrakastatsu hura eta ez dira ahaztekoak, hiriko zein hiri kanpotik etorritako eragileen parte hartzeaz eta Kultur Aniztasun Saitetik hartutako arduraz gain, Foru Aldundiak eta DSS2016 Fundazioak hartutako konpromisoa eta emandako babesa.

2017an, aldiz, Udal Gobernuak jaialdia ez ospatzea erabaki zuen -azken urteetan, Hego Euskal Herriko gainerako hiriburuetara modu batera edo bestera ere zabaldu dena (Gasteiz, Bilbo eta Iruñea)-.

Horrez gain, Udal Gobernuaren programan jasota dago Donostia Kulturarekin eta kultura arteko erakundeekin nahiz elkarteekin elkarlanean, Aniztasunaren Astea antolatuko dela urtero Donostiako errealitate kultur anitza eta eragile horiek hirian egunez egun egiten duten lana ezagutarazteko. Agintaldi honetako hiru urteetan, ordea, ez da halakorik egin.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak ez zuen konpromiso zehatzik hartu ekimen hauek garatzeko.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

**KONTROL MOZIOA:**

**EH Bildu talde politikoa**  
**Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 – [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia [eh\\_bildu@donostia.eus](mailto:eh_bildu@donostia.eus)

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Udal Gobernuari berma ditzatela gobernu agendan arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako ekimenak eta Udaletik abian jar daitezela elkartasunaren, errespetuaren eta kultur artekotasunaren balioez biztanleria sentsibilizatzeko ekimenak.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala Donostiako errealitate kultur anitza eta hiriko eragileak hirian egunez egun egiten duten lana ezagutarazteko ekimena.

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma ditzala Kultur Aniztasun Bulegoak aitortuta dituen baliabideak, Donostiako errealitate kultur anitzaren kudeaketa egokia egiteko.

4.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako kultur aniztasuna osatzen dugun herritarron balioa eta aitortza modu parte hartzailean lantzeko, hiriko jatorri anitzetako taldeekin elkarlanean hasi eta hiriko sarea osa dezala.

Donostian, 2018ko martxoaren 16an

Naiara Sampedro Perez  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**